

LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

eUTSI!

2008ko URRIA - 21 ZK.



hazi, hezi, jolastu...
ingurumena zainduz!

KOTXE GABEKO EGUNA LAUKIZEN

Berriro ere, heldu da irailaren 22a, eta berriro be ospatu dugu Laukizen, "Kotxe gabeko eguna". Hori bai, ahalik eta jende gehien erakartzeko, bariku batean, irailaren 19an, hain zuzen, egitea erabaki zen. Ohikoa denez, ibilaldi egin zen herrian zehar bizikletaz. Ostean, eta partehartzaile bakoitzari bere oparia eman ondoren, Laukizko eskolako gurasoen elkartekoek prestatutako txokolateari ekin genion gogoz (bizikleta gainean egindako ahalegina ondoren.. gosea!!). Arratsaldea behar bezala amaitzeko, Hormairudi kooperatiboa egin genuen. Horretarako txikiek, ertainek eta handiek pinturak, tenperak hartu eta "Aire garbia denontzat" lelopean bururatzen zitzaiena egiteko aukera egon zen. Eta nola ez!! Bizikletaren zozketa ezin falta. Arratsaldeko 7ak inguruan, herriko txikitxu batek atera zuen irabazlearen kupoia: Oier Gorostiaga. Poz-pozik joan zen etxera bi bizikletekin!!(martxa egiteko ekarritakoa eta zozketan irabazitakoa).

Orain, honelako egunak benetako arrakasta izateko gauza bakarra falta da: kotxea, beharrezkoa denean bakarrik hartu eta daukagun garraio publikoa gehiago erabili.





II. MARRAZKI LEHIAKETA

Irailaren 27an, Laukizko Liburutegian II. Marrazki lehiaketa ospatu zen, goizeko 10:30etan hasi eta eguerdiko 12:30etan amaitu zelarik. Aurreko urtean bezala adin ezberdinetako partaideak egon dira; txikiena bakarrik urtetsu 1 eta nagusiena 39 urtekoa.

Partaide gehienak Laukiztarrak izan badira ere, beste herri batzuetakoak ere hurbildu ziren; Gatika, Urduliz, Bilbo eta Gernikatik.

Partaide guztiek oparia jaso zuten; pontxera, poltsatxu eta zorroz kilo bat.

Marrazki guztiak hiru kategoriatan banandu ziren adinaren arabera; 0 urtetik 4 urterarte, 5 urtetik 9 urterarte eta 10 urtetik aurrera. Epaila moduan, gure herriko artista ezaguna den Juan Humaran edukitzeko aukera izan genuen eta, bere iritziz, oso zaila gertatu zitzaion irabazleak aukeratzea, oso maila altua egon delako, baina azkenean aukeratutakoak honako hauek izan ziren:

0 urtetik 4 urterarte;

- 1.Saria: Alazne Garay, Gatikakoa. (Saria; Animalien Jokua.)
2. Saria: Uxue Garay, Gatikakoa. (Saria; ipuina eta margoak)

5 urtetik 9 urterarte;

- 1.Saria: Erkuden Kamiruaga, Laukizkoa.(Saria; Athletiko partxisa)
- 2.Saria: Gorka Gegundez, Laukizkoa.(Saria; liburua eta margoak)

10 urtetik aurrera;

- 1.Saria:Done Kabia, Laukizkoa.(Saria; Tribiala)
- 2.Saria: Aiert Elgezabal, Laukizkoa.(Saria;Liburua eta margoak)

MARRAZKIAK URRIAREN 16RARTE JARRITA EGONGO DIRA LIBURUTEGIAN

MARURI-JATABEKO JAIK



LAUKIZKO JAIK



JATABEGINTZA



Jatabegintza taldeak eratuta, otsailean Santa Ageda kantatzen ibili ginan herrian zehar, proiektu bati babesa emoteko asmotan. Proiektua honako hau zan:

Afrikako Kongon, "Itxaropenaren Mendia" izeneko zentroan dagozan 65 ume elbarri edo ezinduren gastuei (janaria, eskola, medikuarena...) erantzun neurri batean. Horrelako umeak ez dira gehiengotan euren etxeetan onartuak eta kale gorrian ixten ditue. Osasuna zainduaz ganera, zentroak eskolatu ere egiten ditu, poliomiELITISak lapurtu eutsen duintasuna irabazi ahal izan dagien.

Hartutako dirua berehala jarri genduan zentroko arduradunen eskuetan. Hemendik bialdutako laguntza hartuaz batera, hara zelan agertu euskuen euren esker ona zentroa zuzentzen daberen mojak:

"Ez dakigu zelan eskertu KILIMA CHA KITUMAINI ("Itxaropenaren Mendia") zentroan dagozan ume elbarri eta ezinduen alde egin dozuena. Zuengandik hartu dogun dirua - 6.300 \$, hain zuzen - Likasi inguruetatik datozen umerik pobreei laguntzeko erabiliko dogu, barnetegian bete behar daberen 2008-09 ikasturte honetan. Ofizio bat ikasteko aukera izaten dabe hemen, gero ahalik eta autonomoen bizi ahal izateko. Eskerrik asko, laguntza honetan parte izan dozuen guztioi. Jainkoak be-deinkatu zagiezela eta bere graziaz bete. Behin eta barriro, mila esker".



S. Lorentzo jaietan, aurreko urtean lez, zozketa bat antolatu genduan. Suerteak Erlantz Urrestiri egin eutsan keinua eta halan irabazi zituan koadroa eta pernila. On egin dagioela biak! Zorionak!

SANTA KURTZE MARURI-JATABEN

Urtero lez, pasa den irailaren 14an, Santa Kurtze eguna, ospakizun batzuk izan genituen Jataben.

Lehenengoz, ohikoa den Mendi martxa Maruri-Jatabetik. Aurten lehenengoz, txikiek ere inguruak hobeto ezagutze-ko aukera izan zuten, baita Garaizar errota martxan jartzen ikusteko ere. Nagusiek zein txikiek beren oparia jaso eta saiheskiari ekin zioten (goxo zegoen eta!!)

Eguerdian, Maruri-Jatabeko nagusien txanda heldu zen. Ibaiondo erretegian bazkaltzeko batu ziren, 2008an 80 urte bete dituztenei omenaldia egiteko asmoz. 1928an gure herrian jaiotako umeak asko izan ziran, 35 alegia! Eta horietatik 11 izan dira aurten omendu ditugunak: Jose Amezaga, Maria Egia, Isabel Garay, Marcelina Ibargarai, M^a Angeles Larrazabal, Luis Larrazabal, Juan Oleaga, Rosario Sarria, Pedro Torre, Julia Ugalde eta Felisa Urresti. Zorionak danoi!

110 pertsona batu ginen Ibaiondo Erretegian prestatutako bazkari goxoa dastatzeko eta osteko zozketarekin barre egiteko. Aurten denetarik izan dugu, emozioa, negar-tantak, baina batez ere ohikoa den giro aparta!

**Datorren urtean
berriro danok
elkar ikustea
espero dugu!!
(bai mendian
bai bazkarian)**



URIBE BUTROEKO II MINI-OLINPIADAK

Uribe Butroeko II Miniolinpiadak martxan daude jadanik. Lehenengo eta behin eta "motorrak berotzeko" Kontzertua izango dugu Gatikan urriaren 3an, barikua. Bertan, eskualdeko musika taldeek jotzeko aukera duten bitartean, hurbiltzen direnek, informazioa jaso eta parte hartzeko izena eman ahal izango dute. Honetaz gain, Udaletxeetan prest egongo da jakin beharreko guztia izena eman ahal izateko ere.

Hauxe izango da aurtengo programa:

- URRIAK 18: 10:00 - Kirol txapelketa Gamiz-Fikan
12:30 - Goitibehereak Arrietan
- URRIAK 19: 10:00 - Pala txapelketa Laukizen
12:30 - Tortilla txapelketa Meñakan
- URRIAK 25: 10:00 - Herri kirolak Fruizen
12:30 - Bote lasterketa Gatikan
- URRIAK 26: 11:00 - Mahai jokoak Maruri-Jataben
Herri bazkaria

Aurtengo sariak ere, "erakargarriagoak" dira: Lehen postuan geratzen den taldearentzat "Troka"ko abentura asteburua eta bigarren postuan gelditzen den talde-

ko partaide bakoitzarentzat (eta aukeratutako bikotea) gau eta gosaria nekazal turismo batean.

Beraz, zuen partaidetza baino ez da falta.

GAZTE, ANIMA ZAITEZ!!



KULTUR ETXEA

Pasa den irailaren 20an izan genuen Maruri-Jatabeko Kultur Etxe berrian, umeentzako lehenengo ekitaldia. Irailetik abendura bitartean, hilean behin umeentzako ekintzak prestatu ditugu, umeek, gazteek eta gurasoek Kultur Etxeak eskeintzen duena ezagutu dezaten. Egun honetan "Zientzia eroa" izeneko tailerrak eta ikuskizunaz gozatzeko aukera izan genuen. Ekitaldi ezberdina eta umeentzako oso aproposa eta erakargarria, batez ere "blandi bloo" izeneko egin zutenean!!.

Gogoratu, urriaren 18an, azaroaren 22an eta abenduaren 20an, ekitaldi gehiago izango ditugula. Bitartean, jakin eza-zue, liburutegia zabalik egongo dela astelehenetik barikura arratsaldeko 16.30etatik 19.30etara.



AGENDA

ABESTU GEUGAZ!!

LAUKIZ

Azaroak 6, eguena

Ardo Dastaketa

Arratsaldeko 7tan Atxispen

Azaroak 9, domeka.

Lore jokoak (egun osoan)

Azaroak 10. Astelehena

Automakilaje ikastaroa, 18.30etatik aurrera
Atxispen

Azaroak 14, barikua,

Bertso Afaria

Azaroan ere, Tokiko Agenda 21eko foroa. Erne egon!!

MARURI-JATABE

Urriak 18, zapatua

Elvi Sabelhiztuna Kultur Etxean 18.00etan

Urriak 29, asteazkena

Tokiko Agenda 21eko Foroa, 7etan Kultur Etxean

Azaroak 22, zapatua

Txotxongiloak Kultur Etxean 18.00etan

Azaroak 29, zapatua

Bertso Afaria, Jatazpi txokoan

Abenduak 20, zapatua

Marsel Magoa Kultur Etxean 18.00etan

LASTOZKO ZUBIXE

Jontxuk egin ei eban
lastozko zubia,
handixek pasateko
Loretxu txikia.

Hasi zan pasaten da
jausi zan zubia,
Jontxuk hartu ei eban
sentimentu handia.
Lorek egin ei eban.....
Adolfo txikia.

(Herrikoia)

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

AINARA BERGARETXE

MARIA FERNANDEZ

JATABEGINTZA

SAIOA SANZ



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



euskara biziberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA